



CIDER WORLD 2020 Frankfurt

Informazio gehiago:

Naiara Alzaga
688 86 91 24
nalzaga@hazi.eus

Tokia: Frankfurt

Data:

Cider Week: 2020ko apirilaren 9tik 16ra

Cider World : 2020ko apirilaren 18rik 19ra

Sektorea: sagardoaren profesionalak, ekoizpena,
komertzializazioa eta gastronomia

Izena emateko epea: 2020ko otsailaren 14a

Parte hartzearen kostua: 500 € + BEZ = 605 €

Azokaren webgunea: www.cider-world.com

DEIALDI HONETAN:

Azokaren izaera

Azokaren egitaraua

Parte hartzeko baldintzak

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

Eskeinitako zerbitzuak

Izena emateko formularioa

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, Elikaduraren Euskal Industria kanpoan sustatzen laguntzeko jardueren barruan,

Cider World'20 azokan Euskal Sagardoa Jatorri Deiturako Sagardotegien baterako parte hartzea antolatu du, HAZI Fundazioaren bitartez.

AZOKAREN IZAERA

Cider World'20 munduko sagardogilerik onenak elkartzen dituen nazioarteko ekitaldirik garrantzitsuenetako bat da. Hainbat herrialdeetako sagardoak, sagarraren beste ardo batzuk eta elikagaiak aurkezteko topagunea.

Bilkura handi bat da sagardoaren profesionalentzat, ekoi-zen, salmenta eta gastronomiari dagokienez, eta baita interesa duten kontsumitzaileentzat ere. Negozioak bi egunetan kontzentratzen direlarik, eta oso programa osagarri batekin, Cider World lehen mailako topagunea da mundu osoko Sagardoetarako.



Cider Week'20 egitaraua

2020ko apirilaren 9tik 16ra

Sagardoari lotutako dastaketak Frankfurteko hainbat lekutan. Leku horiek Cider World'20 azokaren antolakuntzak berak zehaztu eta kudeatuko ditu.

Osteguna 2020ko apirilaren 16a

Euskal Sagardoa Jatorri Deiturako Sagardoa sustatzeko helburuarekin, afari bat antolatuko da, gonbidatuek euskal gastronomia dastatu ahal izan dezaten, sagardoak izango duen protagonistaren rola.

Cider World'20 antolakuntzak berak kudeatuko ditu afarira joaten diren partaideak.

Ostirala 2020ko apirilaren 17a

Cider World Award saria Cider World'20 nazioarteko azokaren esparruan banatzen da, eta Apfelwein International UG-k antolatzen du. Kontzeptua Wein & Rat agentziarekin (Geisenheim) lankidetzan garatu zen. Bidalitako laginak Geisenheimeko Unibertsitateko laborategian analizatzen dira, eta nazioarteko adituen epaimahai batek probatzen ditu.

Emaitzak nazioarteko epaimahai bati aurkeztuko zaizkio, ingurune eskusibo batean, apirilaren 17an, 10:00etatik 15:00etara, Cider World'20 Nazioarteko Azoka egin baino egun bat lehenago.

Sariak honela sailkatzen dira:

- Urrezko domina
- Zilarrezko domina
- Brontzezko domina
- Cider World'20 domina: emaitzarik onenarentzat

15:00-17:00 Jatorri Izendapenaren barruan dagoen Sagardoaren edo/eta Cider World-en presente dauden sagarrarekin egindako produktu berrien profesionalentzako dastatzea.

19:00 Euskadi-Basque Country afari aurkezpena, Ohorezko Gonbidatu moduan (kokapena konfirmatzeko zain)

Afariaren helburua da parte hartzaileek euskal gastronomia dastatu ahal izatea, hainbat pintxoren bitartez, horietako bakoitza Euskal Sagardoa jatorri deiturako Sagardoarekin uztartuta, produktu protagonista den heinean.

Zeremonia maistra batek Euskadi - Basque Country erakutsi/azalduko du, pintxoen eta Sagardoaren bitartez, horietako bakoitza deskribatuz.

Larunbata 2020ko apirilaren 18a

12:00 Cider World Medal sariak banatzeko ekitaldia.

13:00-17:00 Cider World'20 Azoka. Presentzia nabarmena hall nagusian.

Show Room. Sagardotegi parte hartzaile bakoitzaren presentzia.

Publiko profesionalari zuzendutako dastaketak: saltokiak, prentsa, kritikari gastronomikoak.

19:00 Antolakuntzak erakusle, epamahirikide eta kazetariarentzat natolatzen duen jaiaren parte hartzeko gonbidapena.

Igandea 2020ko apirilaren 19a

10:00 Cider World'20 Azoka.

Ongietorria eta gonbidatutako herrialdearen aurkezpena, Euskadi - Basque Country.

11:00 publiko profesionalari zuzendutako dastaketak: Saltokiak

13:00-18:00 amaierako publikoari zuzendutako dastaketak.



Parte hartzeko konpromisoa

Euskal Ekonomia Erkidegoan fabrikatutako produktuak

Ebaluazio inkesta

Ekitaldian parte har dezakete soilik egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten sagardotegi produktoreek, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Elikadura Industrien Erregistroan izena emanda badaude, eta Euskal Sagardoa Jatorri Deiturako Sagardoa ekoizten badute.

Azokaren aurretik

- Enpresaren ordezkari baten aldetik joateko konpromisoa eta kuota ordaintzea; beraz, EAEko pabiloian sartuko dela jakinarazten denetik ezingo da ekitaldian baja eman. Halabeharrezko kasuetan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren portzentaje bat itzultzeko.
- Ekitaldia irekitzeko bezperan enpresak derrigor egon behar dira, esaten zaien orduan, merkantzia jasotzeko eta beraien erakustokiak dekorazioa amaitzeko jardunaldia hasi aurretik behar besteko aurrerapenez.

Azokan zehar

- Azokan Euskal Autonomia Erkidegoan fabrikatutako produktuak baino ezingo dira erakutsi. Ezin izango dira, inola ere, beste Autonomia Erkidego batzuetako produktuak aipatu, ezta aurkeztu ere.

- Standetan azokako egun guztietan eta zabalik dagoen ordu guztietan eman behar da arreta.

Enpresa batek azokaren ordutegi ofizialean standean arreta emateari uzten badio, salbuespenezko arrazoi justifikaturik gabe, azokaren hurrengo ediziorako lehentasunezko eskubidea galduko du (izena ematearen hurrenkera, etab.). Haren eskariari bakarrik erantzungo zaio baldin eta leku liberrik badago izena emateko eta ordaintzeko datetan, egindako gainerrako eskari guztiei erantzun eta gero.

Halaber, enpresa batek edo batzuek standea hutsik uztearen ondorioz antolakuntzak zigor ekonomikoren bat jartzen badio Eusko Jaurlaritzari –parte hartze bateratuaren antolatzailea den heinean–, zigor hori berehala jasanaraziko zaio/zaie arau haustea egin du(t)en enpresari edo enpresei.

- Azoka amaitutakoan, produktu guztiak behar bezala jasotzea.

Azokaren ondoren

- Ebaluazio galdetegi antolakuntzaren jarraibideekin bete eta entregatzea.

Izena emateko formularioa

Ordainketa agiria

Dastaketa fitxa, laginak bidaltzeko

Izen-emate epea: 2020ko otsailaren 14a

Leku kopurua mugatua denez, gomendatzen dugu lehenbailehen izena emateko formularioa betetzea eta ordainagiria bidaltzea, Naiara Alzagaren izenean: nalzaga@hazi.eus

Enpresa parte hartzaileen hautaketa izena emateko dokumentuak jasotzen diren hurrenkeraren arabera egingo da.

IZENA EMATEKO FORMULARIOA BETE

Formularioan eskatzen den informaziotik datuak zehazki transkribatuko dira, azokaren katalogo ofizialerako eta prestatzen diren gainerako elementu promozionaletarako.

ORDAINAGIRIA BIDALI

Kontu zenbakia: ES49 3035-0179-61-1791069900 Laboral Kutxa, HAZI Fundazioaren izenean.

Kontzeptua: “**Enpresaren izena + CIDER WORLD 2020**”

HAZI Fundazioko Finantza Departamentuak dagokion zenbatekoaren faktura igorriko dizue, izena emateko epea amaitu eta parte hartzea baieztatu eta gero.

Izena emateko epea: **2020ko otsailaren 14a**

DASTAKETA FITXA, LAGINAK BIDALTZEKO

Izena ematearen formalizazioa Parte hartzeari uko egin

GARRANTZITSUA: Izena ematea formalki egindakotzat jotzeko, izena emateko formularioa behar bezala beteta, dastaketa fitxa eta ordainagiria bidali beharko dira, izen ematearen datan, ondorio guztietarako, ordainketa egin den eguna agertuko delarik.

Eskatutako dokumentuak bidaltzeak EZ DU ESAN NAHI enpresak Eusko Jaurlaritzaren pabiloian parte hartuko duela, izan ere, gutxieneko enpresa kopuru bat egon behar da hori egiteko. Eusko Jaurlaritzak izen ematea onartu den jakinaraziko du.

ENPRESAK FAKTURA JASO ETA GERO, HAU DA, EUSKADIKO PABILOIAN SARTU DELAKO JAKINARAZPENA JASO ETA GERO, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU. Hala-beharrezko kasuetan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren portzentaje bat itzultzeko.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartzen:

- Enpresa erakusleek eskatutako gunea Azokaren Antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutako gunea baino handiagoa bada, hautatu ez diren enpresek eskubidea izango dute aurrez izena emateko kuota itzultzeko.
- Eusko Jaurlaritzak halabeharrez edo nahiko partaiderik ez dagoelako parte hartzea bertan behera uzten badu, enpresek eskubidea izango dute ordaindutakoaren %100 jasotzeko.

- 1) Cider World´20 Nazioarteko Azokan parte hartzea
- 2) Merkantziaren garraioa
- 3) Cider World Sarien lehiaktan parte hartzea. Dastaketa fitxa
- 4) Cider World´20 nazioarteko azokaren bestelako ekitaldiak
- 5) Cider Week

AZOKAN PARTE HARTZEA

Enpresa guztientzako espazio OSOA 24 m²-koa izango da.

Parte hartzaile bakoitzak hau edukiko du:

- 1 mahaia
- 1 listuontzi
- 1 hozkailu
- Kopak: Enpresa bakoitzak alokatu ahal izango ditu gordailupean
- Erakusleentzako 2 pase
- Cider World´20 Nazioarteko Azokaren katalogo ofizialan sartzea
- 2 gonbidapen Cider World´20 sarien ekitaldirako
- Produktuen 1 erreferentziarekin parte hartzea Cider World´20 lehiaketan

MERKANTZIAREN GARRAIOA

HAZI Fundaziotik garraioa bateratuta kudeatuko da, produktu guztiak Frankfurten egon daitezen Cider World azokaren aurreko egunetan.

CIDER WORLD´20 SARIAK

Lehiaketan parte hartzea, Sagardotegi bakoitzak produktuaren erreferentzia batekin.

Laginen bidalketa bateratua kudeatzea (otsaila). Garrantzitsua da **dastaketa fitxa betetzea**.

Hazi Fundazioak kudeatuko du lehiaketan parte hartuko duten laginen bidalketa (erreferentzia 1 parte hartzen duen sagardotegiko)

Lehiaketan erreferentzia bat gehiagorekin parte hartu nahi izanez gero, erreferentziako kostua da 119 € + BEZ = 144 €.

CIDER WORLD´20 NAZIOARTEKO AZOKAREN ESPARRUAN KUDEATUKO DIREN EKITALDIETAN PARTE HARTZEA

Cider World´20 nazioarteko azokaren esparruan kudeatzen diren beste ekitaldietan parte hartzeko **ekoizleak kudeatuko du**.

CIDER WEEK

Apirilaren 9tik 16ra ospatuko dne ekitaldi honetan parte hartzeko aukera, produktu bidez..